Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

314

Abenduak 1, 2017

LAURE RODRÍGUEZ,
feminista musulmana:

“Islam-ak berezkoa du feminismoa”

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Euskararen Nazioarteko Eguna
4 Patxuko musikariari elkarrizketa
6-7 Laure Rodriguezi elkarrizketa
8 Kirolak: Gabonetako Krosa
9 Kirolak: Asier Landart
10 Caser Anaka
11 Haurren leihoa
12 Bertsoak / Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Gaztebilan ekimena
14 Gazte Informazioa
15 Agenda

bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus - info@bertako.eus

✓ 24 orduko asistentzia abixu guztientzat
✓ Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
✓ Orotariko zerbitzua 100 € -tik aurrera
✓ Euskerazko zerbitzua
✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

ETXEPARE DÍAZ, FERNANDO



Musikaria. Irunen jaio zen 1938an. 1957an Ametsa Abesbatza sortu zuen, haren lehen zuzendaria izan zelarik. Dozena bat gizonek osatzen zuten orduan abesbatza. 1963an, aldiz, misto bilakatu zen, edozein obra polifoniko interpretatu ahal izateko. Betiko Ametsa abesbatzaren zuzendari, Udal Musika Fundazioko gerente, eta Irungo kontserbatorioko sustatzaile ere izan zen Fernando Etxepare.

Duela bost urte, 2012ko azaroan zendu zen, istripu batez, 74 urterekin. Auto batek harrapatuta hil zen, Mirarietako Ama Birjinaren kaperara zihoala, abesbatza zuzentzera. Kolpe gogorra izan zen hiriko musikarien artean. 2014ko azaroan, bere izena eman zitzaion Santiago auzoan dagoen plazatxo bati. Ametsa Abesbatzako kideek parte hartu zuten ekitaldian.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinuaren eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak antolatu ditu udalak

Handia filma doan ikusteko aukera egongo da, besteak beste

“Mintzodromoa oso interesgarria izaten da, euskara diferenteak entzuteko aukera egoten delako”

David Izaga, Euskara arloko teknikaria

“Handiaren eta anaiaren arteko harremanari buruzko filma da. Oso polita eta hunkigarria”

Josune Gomez, euskara arloko zinegotzia

Euskararekin lotutako aktibitateen egitaraua antolatu du Irungo Udalak, azaroaren 29tik abenduaren 3ra. Azken egun horretan, Euskararen Nazioarteko Egunean, udaletxeko balkoia apainduko dute, eta txistulariak ibiliko dira hiria girotzen. Lehenago, gazteentzako eta helduentzako Mintzodromoak, haurrentzako tailerrak, eta zinema emanaldia antolatu dituzte.

Azaroaren 29an eta abenduaren lehenean izango dira lehen jarduerak, gazteei zuzendutako Mintzodromoak, hain zuzen ere. Mendibil Merkataritza Guneko kafetegian izango dira, bi egun horietan, 10:30etatik 12:00etara. Toki Alai, San Vicente de Paul, Eguzkitza eta Hirubide ikastetxeetako 4.DBHko ikasleak ariko dira bertan. “Helburua izango da gazteei mingainak astindu araztea”, adierazi du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

Lesakan izango da Sareuskaren Mintzodromoa

Abenduaren lehenean, era berean, helduentzako Mintzodromoa egingo dute, baina Lesakan. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskal Herri Elkargoak osatzen duten Sareuska sareak antolatzen du urtero, herri ezberdin batean. Aurten Lesakako Harriondoa Kultur Etxean egingo dute, eta Irungo Udalak autobusa antolatu du, bertara joan-etorria egiteko.

Mintzodromoan parte hartzeko deia luzatu nahi izan du David Izaga Euskara arloko teknikariak: “Oso interesgarria izaten da, euskara diferenteak entzun daitezkeelako, goi nafarrera edo lapurtera, adibidez”. Joseba Olagarai EITBko kazetari etxalartarrak dinamizatuko du saioa, eta besteak beste, bertan izango dira Julen Zelaieta bertsolaria, Joseba Irazoki musikaria edo Mikel Taberna idazlea.

Mahai baten bueltan bilduko dira parte hartzaileak, lauko taldeetan, 15 minutuko hizketalditxoak edukitzeko. “Harriondoa Kultur Etxeak espazio mugak ditu, beraz, izena eman dutenen hurrenkera kronologikoa errespetatuko da”, zehaztu du David Izagak (Azaroaren 28ra arte egon da irun.org web gunean izena emateko aukera). Joateko autobusa 9:00etan irtengo da Jenaro Etxeandia plazatik, bueltakoa, berriz, 21:30etan Lesakatik.

Tailerrak eta zinema, larunbatean

Abenduaren 2an, larunbat goizean, haurrentzako tailerrak egongo dira San Juan plazan, 11:00etatik aurrera, Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen eskutik. Eguerdian, 12:00etatik aurrera, diskofesta egingo dute, haurrek euskaraz abestu eta dantza egin dezaten.

Larunbat arratsaldean, Jon Garaño eta Aitor Arregi zuzendarien Handia filma doan ikusteko aukera egongo da, Amaia Kultur Zentroan (20:00). Donostiako Zinemaldian Irizar Saria eta Epaimahaiaren Saria jaso ditu filmak, eta arrakasta izan du, azken asteetan, zine areto komertzialetan. “Ez du Altzoko handiaren istorioa soilik kontatzen”, zehaztu du Josune Gomezek: “Handiaren eta anaiaren arteko harremanari buruzko filma da. Oso polita eta hunkigarria” Launa sarrera eskuratu ahal izango du interesa duenak, Luis Marianoko turismo bulegoan.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11 IRUN 943.61.54.57
TABISA TANATORIO DEL BIDASOA
San Pedro kalea, 49 HONDARRIBIA 943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

PATXUKO, musikaria:

“Norberaren buruarekin zintzoa izatea da garrantzitsuena”

Lagun batek esan dio diskoak garai bateko kasete bat dirudiela. Denetarik grabatua edukitzen zuen zintetako bat, Kortatu eta Mecano segidan zekartzan horietakoa. Laudorioa da Sergio *Patxuko* Ordoñezentzat (Irun, 1972): “Hori da bilatu duguna, soinu ezberdinak, estilo anitzak, kolaborazio ugari... Disko eklektikoa dela esango nuke”. *Hego haizea, ego querido* lanaz ari da, Patxuko Nice taldearen bigarren diskoaz, alegia. Musikariaren proiektu pertsonalena da bere izena daramana, ibilbide oparo baten ondoren etorri dena. Lehenago, Joxe Ripiau taldean aritu zen Patxuko, Iñigo eta Jabier Muguruza anaiekin, 90eko hamarkadaren amaieran. Gazteenek, dena den, Esne Beltza taldeko abeslari eta showman izan zelako gogoratuko dute.

Arrakasta handiko taldeetan ibili ondoren, zergatik erabaki zenuen proiektu pertsonal bati ekitea?
Esne Beltza utzi nuenean, nahiko saturatuta nengoen musikarekin, eta pixka bat aldendu nintzen. Gero, Patxuko Nicekin, oso poliki hasi gara. Musika ez da nire ogibidea, iturgina naiz, onerako eta txarrerako. Kasu honetan, nahi dudan erritmoan lan egin dezaket.

Sortzailetzat al duzu zure burua?
Sortzailea naiz, beste kontu bat da gauza onak edo txarrak egiten ditudan. Baina nire burua ez da sekula geldirik egoten. Esne Beltzarekin biran ibiltzen ginen garaian, Jon Mari Beasainekin aritzen nintzen askotan, ideiei forma ematen. Sormen guzti hori kanalizatzen lagundu dit berak. Esan dezakegu ideiak nireak direla, baina bera dela forma eman diena. Jon Mari (Beasain) da taldearen motorea.

Ba al zenuten norabide argirik, soinu eta estilo aldetik?
Ez diogu sormenari sekula mugarik jarri. Bakoitzak bere ideiak ekar ditzake, baina gero lokalean transformatzen dira. Bakoitzak bere influentziak eta erreferentziak ditu, eta denok uzten dugu gure arrastoa, gure zertzeladak ematen dizkiogu soinuari. Mundu ezberdinetan aritutako musikariak elkartu gara, eta hori antzematen dela uste dut.

“Mundu ezberdinetan aritutako musikariak elkartu gara, eta hori antzematen dela uste dut”

Letra pertsonalak atsegin dituzu?
Bai, gure unibertso txikiaz, gure mikrokosmosaz hitz egiten dugu abestietan: egunerokoaz, familiaz, gure arazo eta buruhausteez. Iruditzen zait norberaren bizipenei buruz hitz egitea dela zintzoena.

Zein da bigarren diskoaren berritasun nagusia?
Hasteko, bi taldekide berri ditugu, hori nabari da. Bestetik, denborarekin grabatu dugu disko hau, inolako presarik gabe, Peio Gorrotxategi Esne Beltzako teklatu jotzailearen etxean. Sekulako luxua da askatasun eta lasaitasun horrekin grabatu ahal izatea. Bestetik, kolaborazio pila bat eduki dugu, musikarienak, abeslarienak, letra egileenaz... Oso-oso eskertuta gaude.

“Bizitzako arlo guztietan bezala, ilusioa da mugiarazten gaituena”

Esne Beltzarekin milaka lagunen aurrean kantuan aritzetik, taberna txikietara pasa zara, berriro. Gogorra izan da?
Egia da, kontzertu batzuetan ez dugu ikuslerik izan, ia. Esne Beltzarekin 5.000 lagunen aurrean jo ondoren, berriro horretara bueltatzea gogorra egiten da, zalantzarik gabe. Baina tira, ni oso pozik nago egiten ari garenarekin. Gustatuko litzaiguke zale gehiago edukitzea, gizakiak gara, denok dugu egoa. Baina momentu honetan, lehentasuna ematen diogu nahi duguna egin ahal izateari. Norberaren buruarekin zintzoa izatea da garrantzitsuena.

Esperientziarik ez zaizue falta, bederen.
Esperientzia bai, baina ilusioa ere, ikaragarria daukagu. Bizitzako arlo guztietan bezala, hori da mugiarazten gaituena. Beste batzuk korrika egitera joaten dira, Behobia-Donostia egitearen ilusioarekin. Gure ilusioa musika da.

Oso gazte hasi zinen musikan, bertako talde txikietan. 21 urterekin, ordea, Joxe Ripiaun hasi zinen. Nola sortu zitzaizun aukera?
Ni bateria ikaslea nintzen Irungo kontserbatorioan. Ikasturte amaieran, sanmartzialetarako, saio txiki bat prestatzen genuen. Iñigo Muguruza etorri zitzaidan horietako batean, Joxe Ripiauren proiektuari buruz hitz egiten. Parte hartzeko gonbidapena luzatu zidan.

Nik orduan ez nuen inolako harremanik euskal munduarekin. Kortatu eta Negu Gorriak ezagutzen nituen, baina ez nituen jarraitzen. Pentsa zenbat kontaktu edukiko zituen Iñigok orduan. Baina tira, horrelakoa da bizitza.

Zer duzu gogoan, bereziki, garai hartatik?
Jendea, zalantzarik gabe. Bizitzako epe zail baten amaieran harrapatu ninduen, eta asko lagundu zidan inguruan eduki nuen jendeak. Gainera, dena zor diet, ate guztiak ireki zizkidatelako musikaren munduan.

Bateria jotzailea zinen orduan, baina Esne Beltzan, abestera pasa zinen. Nolatan?
Xabi Solanok esan zidan Iban Zugarramurdirekin hitz egin zuela, Esne Beltzan bateria jotzeko. Artista da Zugarramurdi, maila ikaragarria du. Horregatik, Solanok proposatu zidan abesten jartzea, eta animatu nintzen. Gaur egun eroso ari naiz abesten. Adinak konfiantza eman dit, nire beldurrak gainditu ditut.



Irekiera berria

SAKURA

Buffet Menua

astelehenetik ostiralera
12:00etatik 16:00etara (jai egunetan izan ezik)

13,95€

astelehenetik ostiralera
20:00etatik 24:00tara (jai egunetan izan ezik)

18,95€

8 urtetik behera **8,95€**
(3 urtetik behera doan)

Larretxipi, 10 20304 IRUN
Tel 943 61 53 30

LAURE RODRÍGUEZ, feminista musulmana:

“Emakume musulman bat komunikabide edo janzkeraga

Itzalean egon izan da, hamarkadetan zehar, feminismo islamikoa. Periferian, bai islam-aren munduan, baita feminismoarenean ere. Haren oihartzuna, alabaina, zabalduz doa pixkanaka. Laure Rodriguez Quiroga (Paris, 1975) da mundu mailako aktibista nagusietako bat, eta Irunen bizi da, gaur egun. Feminismo Islamikoko Nazioarteko Kongresuko zuzendaritzako kidea da. Bere ikerketen eta liburuen bidez, emakume musulmanaren inguruko estereotipoak apurtzeko lanean ari da, buru-belarri. *Falsos mitos de la mujer en el Islam* (Editorial Almuzara) da argitaratu duen azken liburua.

Parisera migratu zuten galiziarren alaba da Laure Martinez Quiroga. Frantziako hiriburutik Irunera lekualdatu ziren, haurra zela, eta bertan hazi zen. Gero, ia bi hamarkada eman ditu munduko leku ezberdinetan bizitzen, Bidasoa aldera bueltatu aurretik. Testuinguru katoliko batean hezia izan zen arren, helduaroan, islamak erakarri zuen. “Ezingo nuke esan zehatz-mehatz noiz eta nola izan zen. Prozesu luze baten ondorioa da erabakia”, azaldu du Rodríguezek. Azpimarratu du, dena den, islam-a ez duela erlijiotzat hartzen: “Ez da erritual-espirituala bakarrik. Askoz zabalagoa da, munduan egoteko era bat, bizimodu bat, azken finean”.

Feminismo ateotik zetorren Laure Rodríguez, baina ez zitzaion iruditu islam-arekiko kontrajarria izango zenik. Are gehiago, baieztatu du Islam-ak feminismoa “berezkoa” duela. Koranaren irakurketa feminista egiten du Rodríguezek, baina bistan da ez dela interpretazio zabalduena. Pozik dago, hala ere, feminismoa gero eta gehiago hedatzen ari delako komunitate musulmanetan: “Jarraipena izango dugu, belaunaldi berrien partetik. Indartsu datoz, formazio akademiko handiarekin”. Beste kolektibo feminista batzuekin harremanak estutzea lortu dute, gainera, azken aldian. “Matxismoaren aurka indarrak batzea da asmoa”.

Islam-aren interpretazio matxista nagusitu da, leku eta testuinguru batzuetan. Zergatik?

“Gehiengo musulmana duten herrialdeen historia aztertuta, konturatuko gara une batean biraketa bat egon dela, matxismorantz. Hain zuzen ere, Europar kolonizazioaren garaian gertatu zen hori. Europako herrialdeetan nagusi ziren genero teoria guztiak, kolonietan zabaldu ziren orduan. Beraz, islamaren interpretazio misogino horiek lotura handia dute tradizio katolikoarekin”.

Munduko 200 herrialde baino gehiagotan presente dago islam-a. Gehienak, estatu laikoak direla nabarmendu du Laure Rodriguezek. Herrialde arabiarretan eta Afrika iparraldean kokatzen dugu begirada, gehienetan. Baina herrialde horietan, munduko populazio musulmanaren %14 baino ez da bizi. “Herrialdeetako politikak ez dira islam-aren ordezkari. Saudi Arabia eta Iran ez dira gure erreferente, Ameriketako Estatu Batuak kristautasunaren ordezkari ez diren bezala”, adierazi du Rodríguezek.

Emakume musulmanen inguruko estereotipo okerrak aztertu dituzu zure azken liburuan. Janzkerarena da zabalduenetako bat?

“Hala da. Komunikabide nagusiak arakatzen baldin baditugu, emakume musulman bat protagonista denean, bere gorputzagatik eta janzkeragatik izaten da, ia beti. Hori larria da, baina estatu honetako errealitatetik gertu dago. Kontuan hartu, urtarrilaren leheneko trending topic-a Cristina Pedroche telebista aurkezlearen soinekoa dela. Edo sexu erasoen kasuan, oraindik ere biktimaren janzkeran jartzen dela arreta”.

LGTB kolektiboaren aurkako jazarpena ere azpimarratzen da, komunikabide askotan. Zein neurritan gertatzen da?

“Hasteko, aipatu, gehienetan gizonezkoen arteko harreman homosexualetan jartzen dela arreta. Lesbianismoa estali egiten dela. Edonola ere, errealitatea da munduko 75 estatuk zigortzen dituztela sexu bereko pertsonen arteko harremanak. Eta horietatik, gutxienekoa direla mundu islamikoko herrialdeak. AEBak dira horietako bat, estatu batzuetan odola ematea ere debekatzen baitiete homosexualei. Nire galdera da, zergatik ez dira halako gauzak agertzen komunikabideetan?”.

etan protagonista denean, gorputzagatik atik izaten da”

Ez dira akordioak betetzen

Espainiako estatuan, estatu demokratikoa izanik, emakume musulmanen eskubideak errespetatzen ez direla azpimarratu du Laure Rodríguezek. Adibide esanguratsu modura, azaldu du Espainiako estatuak ez dituela emakumezko imam-ak onartzen. “Beste herrialde batzuetan badira, baina Espainiako estatu demokratikoan ez. Matxismo hori estatuak berak sustatzea oso larria da”.

Emakume edo gizon, musulmanen eskubideak urratzen dira Espainiako estatuan, Atzerritartasun Legean sartu gabe, baita bertan jaiotakoak direnekin ere. Leure Rodríguezek argudiatu du: “1992an kooperazio akordioen lege bat sinatu zen, eta oraindik ez da betetzen. Adibidez, gaur egun, hiltzen baldin banaiz, ezin naute hilerri musulman batean lurperatu. Ez dira existitzen. Eta duela 25 urte onartu zen eskubide hori. Ospitalean ingresatzen baldin banaute, ez dut *halal* menua jasotzeko aukerarik izango. Eta eskubide hori ere onartua dago”.

Azken ureotako atentatuen ondorioz sortutako islamofobiari ere aurren egin behar diozue orain.
“Gai horren inguruan, argitu beharra dago Koran-eko *yihad* terminoaren lapurreta bat egon dela, alde askotatik. Ahalegin edo esfortzu handia da bere esanahia. Ni adibidez, matxismoaren aurkako aktibismoagatik, yihadista naizela esan dezaket.

Alde horretatik, *yihad* terminoa bahitzen duen jende horri ezin zaio sinesgarritasunik eman. Argi dago haren burua musulmantzat eduki eta biolentzia erabiltzen duen jendea badagoela, jakina. Baina beste erlijioetakoak ere badira. Muturreko joerak mugimendu guztietan existitzen dira. Nire ustez, terrorismoaren aitzakiaz planteatzen ari diren segurtasun politikak ere aztertu behar genituzke. Huts egin dutela, eta kontrako eragina lortzen ari direla iruditzen zait. Segurtasuna armetan oinarritua dago, eta horrela, ezinezkoa da bakea lortzea”.

Feminismoak ekarpenen bat egin al dezake, bakearen alde?
“Indarkeriaren aurka egiteko ahalmena eta konpromiso irmoa ditu feminismoak. Indarkeria matxista, gerrak, terrorismoa, denek lotura bat dute. Lurraldeak edo gorputzak okupatzean datza indarkeriak, azkenean.

Beste konflikto batzuetan emakumeok erakutsi dugu, indarrak batu ditugunean, lorpenak erdietsi ditugula. Euskal Herrian ere, emakumeen papera funtsezkoa izan da, nahiz eta hori ezkutatu izan den. Dena den, helburua ez da domina jartzea eta argazkian agertzea”.

Metal musika islamikoa aztertzen ari da

Musulmana, feminista eta metal zalea da Laure Rodríguez. Estereotipo guztiak apurtzen ditu. “Ez dut musika arabiarra entzuten”, onartu du: “Metal zalea naiz. Begirada kolonial eta arrazistaren alaba naizenez, nire erreferenteak metal talde okzidental eta zuriak ziren. Ez nuen sekula pentsatu mundu islamikoan ere metal taldeak egongo zirenik”. Denbora darama, ordea, gehiengo musulmana duten herrialdeetako metal musika aztertzen, eta harrituta dago egin dituen aurkikuntzekin. Zerrenda luzea osatzen ari da, 5.000 metal talde baino gehiagorekin.

Afrika beltzean, reggae-ak eta rap-ak presentzia handiagoa dute. Afrika iparraldean eta herrialde arabiarretan, metal taldeen kopurua esanguratsua da. Baina banda gehien, Asia hego-ekialdean daude. Emakume metal zaleen presentzia handia da, gainera, bertan. “Genero gogorrenak lantzen dituzte: trash eta death metala”, azaldu du, harriduraz, Laure Rodriguezek. Metal islamiko kontzertu bat, edo sorta bat, antolatu nahi luke, datorren urtean, Espainiako estatuan.

Abenduaren 16an izango da Gabonetako Krosa

Lagunak gonbidatzeagatik deskontua edukiko dute iazko parte hartzaileek

Laugarren edizioa izango du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak Eguberrien aurretik antolatzen duen lasterketak. Abenduaren 16an egingo dute aurten, 16:45ean. 5 km-ko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek. Azken edizioetan bezala, Zabaltza plazan egongo da irteera, eta Luis Mariano oinezkoentzako kalean, helmuga.

Lasterketarako izen-ematea zabalik dago, eta aukera ezberdinak daude. Aurrez-aurre, Irungo Mendibil Merkataritza Guneko Leire Sport dendan egin daiteke, eta Hondarribian, San Pedro kaleko Papycop paper-dendan. Bidasoa Atletiko Taldeak Palmera Montero Gizarte Zentroan dituen bulegoetan ere egin daiteke izen-ematea, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara. Interneten, kirolprobak.com web gunean eman daiteke izena.

Kuadrillen sailkapenean parte hartzeko, izena eman ondoren, talde bakoitzak emaila bidali beharko du batatletismo@gmail.com helbide elektronikora, kuadrillaren izenaren eta taldekideen nortasunaren berri emanez. Lau lagunentzako afariak banatuko dituzte, sari gisa, gizonezkoen, emakumezkoen eta talde mistoen kategorietako hiru lehenengoentzat.

Gonbidatu laguna

Gabonetako Krosaren azken edizioan parte hartu dutenei eskaintza berezia egin die aurten BATek. Iaz lasterketan korrika egin ez zuen lagun bat animatuz gero, 5 euroko deskontua izango dute dortsalaren prezioan. Horretarako, biek izena eman ondoren, emaila bidali beharko dute batatletismo@gmail.com-era. Momentu honetan 13 euroren truke eskura daitezke dortsalak. Lasterketaren egunean, 18 euro balioko dute.

Dortsalak Super Amara supermerkatuan jaso beharko dira (Iparralde hiribidea, 8), abenduaren 14an eta 15ean (17:00-21:00), edo abenduaren 16an, lasterketaren egunean, 9:30etatik 12:00etara. Abenduaren 13a baino beranduago izena ematen dutenek, irteera gunean jaso beharko dute, abenduaren 16an, 14:30etatik 16:15etara.

Korrikalarien poltsan, Luis Marianoko eta Zabaltzako tabernetan pintxoak hartzeko baleak banatuko dituzte. Sarien zozketa egongo da, eta argazki lehiaketa bat ere bai. Bestalde, lasterketaren aurreko igandean, abenduaren 10ean, Gabonetako Krosa lasterketako ibilbidea osatzeko aukera egongo da, erritmo ezberdinetan, BATeko atleten eskutik. 9:00etan geratuko dira Zabaltza plazan. Parte hartzeko, batatletismo@gmail.com web gunera idatzi beharra dago.

Urtebete eskasean, hoberenen artean

Estatuko oztopo lasterketa nagusietako podiumetan dabil Asier Landart

Urte eta erdi pasa da Bilboko Spartan Race lasterketan lehen aldiz parte hartu zuenetik. Aurreneko esperientzia izan zen, Asier Landartentzat (Irun, 1990), oztopo lasterketetan. 50.postuaren bueltan ibili zen orduan. Orain, 2016-2017 denboraldiari amaiera eman berri dio, podium eta garaipen sorta ederra bildu, eta Europako Txapelketan parte hartu eta gero. Progresio azkarra izan du, ezbairik gabe.

Atletismoan ibilia da Asier Landart. Pertika jauzian izan zen espezialista. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikasketak egitera Gasteizera joan zenean, ordea, utzi egin zuen. Ez zuen entrenatzeko denbora askorik, eta futbolean ibili zen garai hartan, lagun artean, Behobia elkartean. Behobia-Donostia bat ere egin zuen, korrika. Urte batzuk pasata, Bilboko Spartan Race oztopo lasterketa iragartzen zuen kartel bat ikusi zuen, eta probatzea bururatu zitzaion.

Gehiegi entrenatu gabe egin zuen arren, ikaragarri gustatu zitzaion esperientzia. "Gehien erakarri nauena da lasterketa gehienak ingurune naturaletan egiten direla. Bestalde, korrika egiteaz gainera, kilometro erdi bakoitzeko oztopoak dituzu, eta horrek askoz dibertigarriagoa egiten du lasterketa", argudiatu du Landartek: "Ziurgabetasun puntu bat du, ez dakizulako zer etorriko den. Horrek emozioa ematen dio, denbora guztian nekean eta sufrimenduan pentsatzea ekiditen du".

Denetarik izaten da oztopoen artean: pisua kargatzea edo arrastatzea, oreka, zintzilikatzea, herrestatzea, igeri egitea etab. Kirol osoa da, beraz, arlo fisikoan. Baina gainera, memoria probak ere egon daitezkeela nabarmendu du Landartek: "Dortsalean kodigo bat jartzen dizute, gogoan hartu behar duzu, eta 6km-ren buruan, galdetu egiten dizuten. Asmatzen ez baldin baduzu, penalizazioa jasotzen duzu". 5km-ko lasterketak dira laburrenak, eta 21ekoak, maratoi erdikoak, luzeenak.

Jaso duen formazioagatik, bere burua entrenatzeko "gaitasuna" duela uste du Landartek. Berak planifikatzen du prestaketa. Entrenatzeko konpainia bilatzen du, hala ere, gogorra baita bakarrik aritzea. Entrenamendu funtzionala egiteko, Anzaranen dagoen Nae Systemen aritu izan da, eta eskalada ere egin izan du, Area 51n. Orain, lan espezifikoa Hernaniko gimnasio batean aurrera eramaten du. Korrika egitera, Plaiaundira hurbiltzen da, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko lasterkariekin aritzera. "Erotuta nagoela esaten didate", aitortu du, barrez.

Esperientzia gogorrak eduki ditu

Bilboko lehen lasterketaren ondoren, 2016ko irailean hasi zen gogor entrenatzen. Galdakaoko Eternal Running lasterketan podiumera igo zen, hirugarren tokian. Hortik aurrera, Espainiako Ligako lasterketetan parte hartzen hasi zen, Elite kategoria nagusian. Gehienetan, ez da podiumetik jaitsi. 2017ko ekainean, Bilboko Spartanera itzuli zen, eta bosgarren tokian geratu zen. Emaitza ona, lasterketaren maila handia kontuan hartuta. Horri esker, Europako eta Munduko Txapelketetarako txartelak eskuratu zituen. "Europakoa Andorran izan zen, beraz, parte hartzeko aukera izan nuen. Munduko Txapelketa, aldiz, Californian egin zuten, AEBetan. Hortaz, ahaztu behar izan nuen".

Izan ere, Asier Landartek berak ordaintzen ditu izen-emateak eta bidaiak. Ez baitu babeslerik edo diru-laguntzarik. "Espainiako Ligan zazpigarren postuan nago, jendeak lasterketa gehiago egiten dituelako", azaldu du. Europako Txapelketan parte hartu zuen, esan bezala, Andorran. "Esperientzia ederra" izan zela baieztatu badu ere, bertan behera utzi behar izan zuen lasterketa, ibilbidearen erdian. "Baldintzak oso gogorrak ziren. Grandvalira eski estazioan izan zen lasterketa, 2.500m-ko altueran, -2ºko temperaturarekin. Maratoi erdia zen, gainera. Digeritze arazo bat eduki nuen, eta erretiratu behar izan nuen".

Espainiako Txapelketan ere esperientzia txarra eduki zuen, azaroaren 12an, Badajozen. Lasai atera zen, eta jendea aurreratuz joan zen, 10.kilometroan, hiru falta zirela, hirugarren postuan kokatu zen arte. Oztopoetako batean, ordea, besoek aski zela esan zioten. "Suspentsio oztopo asko zeuden lasterketan zehar, eta horietako batean, besaurreak blokeatu zitzaizkidan. Hala ere, itxaroten egon nintzen, eta ordu bete beranduago, hantura arindu zitzaidanean, lasterketa bukatu nuen. Pena izan zen, baina pozik nago, eskura neukalako podiuma. Pixka bat gehiago entrenatzea falta zait".

Podiumeko koska altuena ezagutzen du

Irabazten ere badaki Asier Landartek. Gogoan du bere lehen garaipena, Roman Race lasterketan, Cascanten (Nafarroa). "Hilabeteak neramatzan 2. eta 3. postuetan, baina ez nuen irabaztea lortzen. Pentsatzen hasia nengoen, ea ezin izango ote nuen inoiz irabazi. Lasterketa hura irabazi ahal izan nuen, eta ilusio ikaragarria egin zidan". Bide horri eutsi nahi lioke hurrengo denboraldian. Aurten izan duen hobekuntza oinarri hartuta, baikorra da 2018 urterako. "Hoberenen artean nago, baina onena izan nahi nuke", aitortu du.

Beste herrialde batzuetan aspaldi hedatua badago ere, estatuan duela hiruzpalau urte hasi ziren oztopoetako lasterketak ugaritzen, crossfit edo entrenamendu funtzionalaren eskutik. "Duela hiru urte bi lasterketa baino ez zeuden estatuan. Aurten 150 izan dira", azaldu du Landartek. Hala ere, ez du uste moda kontua denik. "Eztanda betean gaude momentu honetan, baina uste dut geratzeko iritsi direla oztopo lasterketak". Entrenamendu funtzionaletik datorren jendea izan da nagusi, orain arte, oztopo lasterketetan. Pixkanaka, mendi lasterketetatik datorren jendea nagusitzen ari da, hala ere. Asier Landartek, pertikak garai batean emandako bultzada baliatzen du.

Hamabost urte bete ditu Caser Anakak

Urteurrenarekin lotuta egongo da abenduko egitaraua, Eguberrien aurretik

Duela hamabost urte zabaldu zituen ateak San Miguel auzoan dagoen Caser Anaka egoitzak. Urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu dute, eta abenduaren 11n hasiko da, urteurrenaren irekitze ofizialarekin. Aste horretan zehar, arteterapia eta makillaje tailerrak, zuhaitz baten landaketa, meza eta bingo bereziak eta musikoterapia kontzertua egongo dira, besteak beste. Hilaren 13an urteurreneko bazkari berezia edukiko dute, pastelarekin. Ospakizunei amaiera emateko, kontserbatorioko musikarien kontzertua egongo da, abenduaren 15ean, ostiralarekin.

Ia egoitza ireki zen momentutik, bertan lanean dabiltza Sonia Arranz plantako arduraduna eta Begoña Berridi auxiliarra. Hamabost urte beteko dituzte Caserren, 2018ko udaberrian. Uste dute egoitzan izan den aldaketarik handiena dela gaur egun, adinekoek euren kabuz erabakitzen dutela, askotan, egoitzan sartzea. Giroa ere aldatu dela eta atseginagoa dela iruditzen zaie. "Orain, ospitalean ingresatzen dituztenean, adibidez, etxera bueltan eramateko esaten diete seme-alabei. Haientzat, hau da etxea. Hori gauza handia da", argudiatu du Arranzek.

"Bokazioa" beharrezkoa dela baieztatu dute bi langileek. Izan ere, momentu gogorrak bizitzen dituzte. Zailtasun horretan datza, hala ere, adinekoei laguntza emateak norbera asebetetzeko duen gaitasunak. "Enpatia eta asertibitatea pila bat lantzen dira. Oso aberasgarria da", adierazi du Berridik. Egoiliarrekin Eguberriak konpartitzea, adibidez, oso polita dela azpimarratu dute. "Batzuek hemen pasatzen dituzte, seniderik ez dutelako. Haien zoriontasuna ikusteak ez du parekorik", aipatu du Sonia Arranzek. Abenduaren 18an hasiko dira Eguberrietako jarduerak Caser Anakan.

Maria Duque egoiliarrak 96 urte ditu, eta ia egoitza ireki berria zela sartu zen. Errenteriarra sortzez, bertako egoitzan lekurik ez zegoelako iritsi zen Irunera, baina gustura dago orain. Egoiliarren artean topatu zuen "adiskidetasuna" nabarmendu du. Ahizpak eta iloba etortzen zaizkio bisitan, tarteka. Bazkaltzeko prest dagoela erantzun ditu galderak, ez baitu apetitua galdu. "Ez dira manjareak, baina ondo jaten da", adierazi du, umoretsu.

Nagusilan elkartearekin elkarlana

Azken hamabost urteetako ibilbidean nabarmendu daitekeen beste arloetako bat da Caserrek Nagusilan elkartearekin duen harremana. Adinekoei akonpainamendua eskaintzeko sortu zen Nagusilan, 1995ean. Caserren, kantaldi interaktiboak antolatzen ditu, adibidez. Bestalde, gurpildun aulkian dauden gizon-emakumeentzako irteera bereziak antolatzen dituzte, haien zailtasunak kontuan hartuaz. Aurten, Donostiako Aquiariumean, Eureka Zientzia Museoan, Astigarragako Sagardoaren Museoan edo Oiartzungo Arditurriko Meategietan izan dira.

San Vicente de Paul LH1

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

Félix Manso
IBARLA

Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

IRUNABAR
BIZKOR BIZITZAREN BEGUNEA

ZURE ORDENEAN

Doinua: Semeari (Aire ahizpak)
Manu Goiogana Bengoetxea

1)
Siesta egin nahi duzu
mahaian gaudenean,
paseoa siestaren
une onenean,
ibili nahi jateko
ordua denean
harrapaturik gaude
zure_eromenean,...
hau ere joango da
zure ordenean (bis)

2)
Aldiro begiratzen
duzu ingurura
guztia ezezagun
bazenu modura ...
nitaz ere egingo
zenuenez duda
aitatxo naiz, atera
aurretik mundura
kanpotik hitz egiten
zizun ahots hura (bis)

3)
Jaio orduko zure
gorpuztxo txikira
bisitan etortzea
da denen desira
Lasaitasuna behar
dugula argi da,
beraz, datozenean
bisiten harira,
hasi negarrez eta
urrunduko dira! (bis)

4)
Jartzen zaizkizunean
begiak malkotan
etzan ohi gara biok
lasaitu asmotan
nahiz bularretik tira
egin nahi askotan
amore ematean
ahalegin hortan
aitarekin batera
hasten zara lotan (bis)

5)
Halakoa zarela
entzun duzu sarri,
bestelako bazara
ingurua larri,
gero, beti inoren
antza nahi igarri...
hona izenondorik
ez dut nahi ekarri;
horrelako zamarik
ez dizut nahi jarri (bis)

6)
Lasaitasuna hartu
duzu lokartzeko
nahikoa ni paperen
aurrean jartzeko
baina prest nengoela
metrikan sartzeko
intziri egin duzu
aita ohartzeko
bertsotan hartu ordez
besotan hartzeko (bis)

El Pilar LH3

ARANTXA URRETABIZKAIA

Arantxa Urretabizkaia Donostian jaio zen 1947. urtean. 13 urterekin Urretabizkaia Idazkaritza ikasten hasi zen, eta 16 urterekin bulego batean lan egiten zuen bitartean, Erizaintza ikasi zuen. Lan egiteari utzi gabe, Historian lizentziatu zen. Arantxa Urretabizkaia umeentzako eta helduentzako liburuak idatzi zituen, adibidez: "***Sasi guztien gainetik***", "***Aurten aldatuko da nire bizitza***", "***Saturno***"...

1977. urtean oso famatua egiten hasi ziren bere liburuak. Idatzi zuen lehenengo liburua "***Lur***" zuen izena. 1972. urtean, "*San Pedro bezperaren ondoak*" poema luzea argitaratu zuen. 1982an, kritika lehenengo saria jaso zuen "***Maitasunaren magalean***" liburuarekin. Baina dudarik gabe, 1979an oso arrakasta handia lortu zuen "***Zergatik Ponpox?***" liburuarekin. 1981. urtean, Ignacio Aldecoa X. saria irabazi zuen, "*Baina ez egunero*" liburuarekin.

1981an, "***La fuga de Segovia***" pelikulan parte hartu zuen. 1983. urtean "***Aspaldi espero zaitudalako ez nago sekulan bakarrik***" liburua atera zuen. Urte berean, "**Albaniako konkista**" pelikularako lan egin zuen. Hiru urte geroago, zinemetan, "***Zergatik Ponpox?***" liburuaren filma atera zuten.

1987an, "***Saturno***" liburua argitaratu zuen. 1992. urtean, "***Aurten aldatuko da nire bizitza***" helduentzako liburua plazaratu zuen eta 2001ean, umeentzako, "***Basamortuko malkoa***" idatzi zuen. 2010ean, "***3 Mariak***" liburua idatzi zuen.

Arantxa Urretazbizkaia, gaur egun, Hondarribian bizi da eta irratiko zenbait tertulietan parte hartu ohi du.

Uxue Arocena EL PILAR IKASTETXEA, 6. MAILA

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

Merkataritzan edo sare sozialetan espezializatzeko aukera eskainiko du Gaztebilan programak

DBHtik gorako formazioa jaso duten hogeita hamar urte baino gutxiagoko gazteei zuzendutako proiektua da

Gaztebilan programa martxan jarri du Irungo Udalak, Bidasoa bizirikaren bidez, Irun Ekintzan enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko akordioaren baitan. 30 urtetik beherako gazteei zuzendutako formazio espezifikoa da, bi sektore zehatzetan zentratua: nazioarteko merkataritza eta sare sozialak. Batxilergoan edo Erdi Mailako Zikloetan formazioa jaso duten gazteek parte hartu dezakete, eta abenduaren 11 baino lehen aurkez ditzakete hautagaitzak.

Formaziorik gabeko gazte langabeei zuzenduta egoten dira, sarritan, administrazio publikoek enpleguaren arloan luzatzen dituzten diru-laguntzak. Oraingoan, DBHtik gorako formazioa duten gazteei zuzendu zaizkie Irungo Udala. "Formazioa jasota ere, lan munduan sartzeko zailtasunak edukitzen dituzte", gogorarazi du Miguel Ángel Páez Hiri Sustapena arloko ordezkariak. Espainiako Gobernuko Enplegu Ministerioak Europako Gizarte Funtsaren babesa jaso du proiektuak, eta aurrekontuaren %91 hartuko du bere gain. "Albiste ona izan da guretzat, ezustekoa ere bai, EAEn hiri bakarra izan baikara aurten, laguntza hori jasotzen", zehaztu du Páezek. 85.775 euroko aurrekontua edukiko du.

Irungo La Sallek eta Garraio eta Komertzio Institutuak parte hartuko dute, gazteei formazio espezifikoa eskaintzeko, nazioarteko merkataritzan eta sare sozialetan. Miguel Ángel Páezek argudiatu du sektoreen aukeraketa: "Ondo aurre egin diote krisiari, eta kontratazioak egiteko beharra dute, datozen urteetan jarduera esparrua zabaltzeko asmoa dutelako". Parte hartzen duten gazteek hamabost laguneko bi lan talde egonkor osatuko dituzte. Elkarlanean ariko dira, modu kolaboratiboan, eta besteak beste, hizkuntzak eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak landuko dituzte. "Trebetasun berriak eskuratuko dituzte, konfiantza eta segurtasun giro batean, aurkezten zaizkien erronkei aurre egiteko, aurrerago, lan munduan egin beharko duten bezala", adierazi du Mar Romo Irungo La Salleko Enplegu Formazioko arduradunak.

Hilabete eta erdiz, enpresa ezberdinetan praktikak egiteko aukera ere izango dute. "Formazioan landutako guztia praktikan jartzeko abagunea edukiko dute", adierazi du Mar Romok. Praktiken eperako, joan-etorrietarako bekak jasoko dituzte parte hartzaileek. Askotan, hezkuntza eta lan mundua errealitate ezberdinak izaten dira, eta formatutako gazteak ez dira enpresetara egokitzen. Mar Romok azaldu du: "Behar duguna da ikasleak modu proaktibo batean iris daitezela enpresara. Berritzeko eta ikasteko gaitasuna, ikasi nahi izateko jarrera eduki dezatela.

Izena emateko baldintzak eta moduak

Abenduaren 11ra arte aurkez ditzakete Gaztebilan programarako hautagaitzak, DBHtik gorako formazioa duten 30 urtetik beherako gazteek. Horretarako, Gazte Bermerako Sisteman izena eman behar dute lehenago, CBA Kultur Gunean dagoen Igazte Gazte Informazio Bulegoan, edo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan. "Burutu beharreko tramitea besterik ez da, aipatutako baldintzak betetzen dituen edozein gazteek egin dezakeena", zehaztu du Miguel Ángel Páezek.

Ondoren, www.elespazio.com web gunean, edo 943 633 169 telefono zenbakira deituta izena eman daiteke Gaztebilan proiektuan. 30 hautagaiak aukeratuko dituzte abenduaren 11tik aurrera, eta hilaren 14an, aurreikuspenen arabera, klaseak hasiko dituzte. Apirilera arte iraungo dute klaseek, eta ondoren, parte hartzaileek praktikak egin ahal izango dituzte.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

"Danceweb" Austriako jaialdirako bekak

Vienan, ImPulsTanz jaialdiaren baitan, 5 asteko egonaldia egitea sartzen da programan.

Betekizunak: Dantzariak edo koreografoak, eta ahal dela 22-30 urte bitartekoak.

Noiz: 2018ko uztailaren 11tik abuztuaren 15era.

Lekua: Viena (Austria)
Non: ImPulsTanz jaialdia (Vienna International Dance Festival).

Hauek barne: tutore artistikoek emandako banakako entrenamendua, ikerketa-proiektuetan eta teknika-tailerretan parte hartzea, ImPulsTanz-en aurkezpen guztietara onartua izatea, ideiak eta kontaktua trukatzea nazioarteko entrenatzaile eta koreografoekin.

Izena emateko epea: abenduaren 15era arte.

Zuzkidura: 6.450 € inguru (norberaren eskaera zein den).

XII. IRUNBREAK Break Dance txapelketa

Eguna: abenduak 23

Ordua: 19:00etan.

Non: Amaia KZn.

Sarreren salmenta:
- Interneten bidez.
- Lehiatilan txapelketako egun berean.
- Irungo Turismo Bulegoan (Luis Mariano plazan).

Prezioa: 4,20 euro.

Antolatzailea: www.irun.org

Gazteen Enplegurako Ekintza Programa 2017 "GAZTEBILAN"

Informazio gehiago 13. orrialdean.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Informazio gehiago 3. orrialdean.

ABENDUAK

1

Zer?
Kantujira Landetxa auzotik.

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta Auzo Elkarteak, Auzo Elkarte Taberna, Itzala, Ongi Etorria, Bar Nuevo, Bar Arantxa, Otazpi eta Auzoko Tabernarekin batera auzotik Kantujira bat antolatzen dute.

Ordua?
19:00tan

2

Zer?
Bakarrizketak: "Birziklatzearekin barrez leher gaitezen". Mario Simancas, Jon "Txiki" eta Oihan Vegaren eskutik. Txingudi Zerbitzuak-ek antolatuta.

Non?
Gaztelumendi tabernan

Ordua?
19:30etan

Prezioa?
Doan.

2

Zer?
Su Txikian Elkarteak, Emakumeak, Gorputzak eta Dantza proiektua martxan jarri du, dantzak emakumearen ahalduntzean duen eraginaren inguruan hausnarketa prozesu kolektibo bat burutzeko helburuarekin.
Hiru saioren bitartez, perspektiba ezberdinak ikusteko aukera izango dugu. Bertan suertatzen diren erronkei buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko, egungo gizartean kanpotik iristen zaizkigun mezuak zalantzan jarriz eta aztertuz (begirada kritikoa vs. askatasuna, hipersexualizazioa/emakumearen gorputza gauza bihurtzea vs. gure sexualitatearen adierazpen askea, lotsak, tabuak, kulpa, estereotipoen transmisioa, gorputz normatiboak, etab).

Non? Dunboa Eskola Publikoa, Martxoak 8, 1.

Ordutegia? 16:30taik18:00etara.

Informazio gehiago?
666347979 eta sutxikian.elkartea@gmail.com

3

Kontzertua: CUARTETO "BARBER SHOP" "AFTERSHAVE"

Interpreteak:
- Ricado Leal (Tenorea).
- Ángel Rodriguez (Baritonoa).
- Isidro Anaya (Baxua).

Ordua: 20:00.

Non: Amaia KZn.

Prezioa:
Kideek 12 € / Kideak ez direnek 18 € * / 30 urte arteko gazteek 5 €

3

Euskararen Eguna

Abenduaren 3an, Irungo udaletxeko balkoia Euskararen Nazioarteko Egunerako apainduko da eta txistularien diana egongo da egunari diosala egiteko.

Ordua: 19:30etan.

Non: San Juan Plazan.

Prezioa: Doan

Informazio gehiago 3. orrialdean

3

Zer:
Euskalduna eta Irungo Mendizaleak elkarteen arteko irteera. Andoaingo inguruetatik 20 kilometroko ibilbidea egingo da. Ondoren anaiarteko bazkaria ospatuko da gastronomia elkarte batean, euskalduna elkartearen ondoan. Interesatutakoak elkartetik pasa daitezke izena ematera. Bazkarira bakarrik joateko aukera ematen da, bazkaria 14:30ak aldera izango da, 25 euroan.

I**bilbidea:** 21,0 km.

Irteera: 7:45 Bixeratik.
.

Prezioa: 13 Euro; Bazkaria: 20 Euro.

Telefonoa: 943 631484.

webgunea: http://irungomendizaleak.com/euskalduna-irungomendizaleak/

8-9-10

Gabonetako Azoka

Zer: Gabonak aurreratzen ditugu 2017-ko EUSKAL KOSTALDEKO GABONETAKO AZOKArekin. Irunen izango da sektore ugari biltzen dituen azoka, abenduko zubian, abenduaren 8tik 10era. Gabonetako erosketak egiteko egun aproposak, adin guztietako publikoari zuzenduta.

Non: Ficoban.

Ordutegia:
Ostirala eta larunbata: 11:00-21:00; Igandea: 11:00-20:00.

Prezioa: 3€; 12 urtera arteko haurrak doan.

abenduak 2ra arte

Patricia Arteagaren erretratu erakusketa

Zer: 1973ko martxoaren 17an jaioa, Santa Cruzen (Bolivia). "Txikitatik margolaritzarekiko egonezinak eta neska txiki bat izanik ikusi izandako Barquito de papel telesailak, margotzea denborapasa bat baino zerbait gehiago zela ikusarazi zidan. Orain, margolaritza amets bat, ilusio bat izatetik errealitate izatera pasako da nire lehen erakusketarekin".

Ordutegia:
Osteguneti larunbatera 19:00etatik aurrera / igandeetan 17:00etatik aurrera.

Non:
Kabigorrin.

Prezioa: Doan.

12. edizioa!

euskal kostaldeko gabonetako azoka

abenduak 8 - 9 - 10. **FICOBA. Irun**

ostirala: 11:00 - 21:00 / larunbata: 11:00 - 21:00 / igandea: 11:00 - 20:00

KRUZERO BAT OPARITZEN DUGU!

ETA EROSKETA TXEKE, GABONETAKO LOTE ETA SASKIEN ZOZKETAK ORDURO!

Irudi informatiboak, ez kontratuzkoak / Zozketen arauak: expo.ficoba.org

#FeriaNavidad2017

expo.ficoba.org

P dohainik

Ficobara, zatoz trenean!

euskotren *(Irun-Ficoba geltokia)*

Antolatzaile

FICOBA

Avda. Iparralde, 43
20302 Irun-Gipuzkoa
+34 943 66 77 88
www.ficoba.org

Babesleak

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

Ayuntamiento Udala Irun www.irun.org